

Tolosaldeko hitzolarien hiztegia

#hitzolariak

Euskararen Eguna Tolosaldean 2019

“Gure hitzak
esan berriz esan
ez daitezela ahaztu
ez daitezela gal,
elur gainean
txori anka arinek
utzitako arrasto sail
ederra bezalaxe”

Bernardo Atxaga

Hiztegi hau, 2019. urteko Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosaldeko herrietara zabaldutako egitasmo proposamenaren ondorioa da. Egitasmoak eskualdean erabiltzen diren hitz propioak biltzea, hitz zaharrei esanahi gaurkotua eranstea eta hitz berriak sortzea izan du helburu. Horrenbestez, jarraian zerrendatutako hitzak Tolosaldean erabiliak izan daitezke, edota hitz berriak edo hitzen esanahi berrituak izan daitezke.

Lerro hauen bidez eskerrik beroenak hitz bilduma hau osatzeko ekarpena egin duten guztiei.

Parte hartu duten herriak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Tolosa eta Zizurkil.

A

ABAROA: Abereek eguzkitik babesteko erabiltzen duten babesgunea.

AGA: Makil luzea.

AGEA: Nazka.

AGRADOREA: Arropa zabaltzeko pintza.

AHABALEA: Zerikusia.

AHARDIA: Txerri emea.

AHESIAK: Gurdiaren alboetan jartzen diren zurezko bi piezak.

AHIERKUNDE: Moda.

AHO LEHARRA: Titiko umeak ahoan dituen zauriak edo mina.

AHOKO ZULOAN: Esku-eskura.

AHOTS HILA: Mutua.

AHOTSAREN ITZALA: Oihartzuna.

AITALFERRA: Aita alferra.

AIUBREA: Belar mota bat, behiak jateko.

AIXTIN: Orain gutxi.

AIXTURRAK: Guraizeak.

AIZTIZKIO (EGON): Denbora luzez zai egon izana adierazteko adiera.

AJESANZ: Zaindarien astea pasata Herrikide eskolako pasilloetan dagoen giroa.

AKAGUREA: Norbait akabatzeko gogoa.

ALARMA-JALEO: Lotia.

ALBAKAIA: Ahariak aldamenetik ematen duten burukoa.

ALBITXIKUA: Albarikokea.

ALBOTIK IBILI: Saihetsetik ibili.

ALDABA: Atea jotzekoa.

ALDABOIA: Euria goitik behera egin beharrean, zeharka egiten duenean.

ALLANDOAK: Gabonetako eskean fruta bakarrik lortzen denean.

ALPERRA: Lurra zapaltzeko eta xehetzeko tresna.

AMATXUTIKIA: Amazuloa.

AMETO EMAN: Amore eman.

AMILLA: Sorbaldan janzten zen kapa-edo, hotzetik babesteko.

ANDERIA: Panpina.

ANDU MTZ. ERDI TUERTO: Tolosako alkatetzaren barkua erasotzen ahalegin-
du den pirata.

ANEGA: Neurria, lau gaitzeru

ANTOXINA: Eskulekudun metalezko ontzia, baserri inguruetakoko iturrietan
egoten dena.

ANTZIARRA: Lanbroa izoztua.

APARKALEKUA: Tolosako Izaki Mitologikoa.

APATXINDA: Eserita.

APATXURRA: Egurra lantzeko aitzurra.

APOILO: Morroi.

APOTEA: Txerri arra, hazietarako erabiltzen dena.

APRETAK: Alpargatak.

APUA: Pertsona zuhurra.

ARAKAIZTU: Eskuko zauria faltsuan edo gaizki ixtea.

ARAKILA: Galtzak zulatzean, zuloa tapatzeko jartzen dena.

ARBAZTA: Adarra hostoekin.

ARBIALDI: Urteak.

ARDAGAIA: Zuhaitzetan ateratzen den onddo modukoa, sua pizteko eta ba-
serri batetik bestera sua eramateko erabiltzen zena.

ARGAZTAKIA: Gaztaren argazkia.

ARGIZAIOLA: Kandela biltzeko egur zatia.

ARIA: Lurra txikitzeako tresna.

ARIKOA: Aharia.

ARINGA-ARINGA: Korrika.

ARKA-SAHATSA: Egurra lotzeko erabiltzen den landarea.

ARKE: Txerri emea.

ARKUAIZIAK: Ardiei ilea mozteko guraizeak.

ARPILLEA: Trapu bustia.

ARRANPALO: Bataioen ondoren botatzen zen dirua.

ARRAPASKA: Garai batean herriko lurretan garoa biltzera joaten ziren base-
rritarrak.

ARRASOILA: Eztabaidarako tarterik ematen ez duen argumentua.

ARRASTALUA: Eskuarea.

ARRAZKILA: Kanpaia goizeko seietan.

ARRAZOLA: Arratsaldeko eguzkia.

ARREA: Baratzeko lanabesa.

ARREOA: Garai batean, ezkondu aurretik emaztegaiaren familiak etxerako prestatzen zituen gauzak.

ARROA: 12,5 kilo.

ARTA JORRAN EGON: Potro jorran egon.

ARTAGANBA: Baserriko elikagaiak gordetzeko gela edo tokia.

ARTAXIA: Ileko marra.

ARTAZKIA: Buru erdia moztuta ateratzen den argazkia.

ARTESTA: Espainol batuan lan egiten duen artista.

ASPILLA: Animalien janaria.

ASPUAKUA: Lixia jartzeko trapua.

ASTALKAK: Astoari belarra ekartzeko jartzen zitzaizkion zestoak.

ASTO ERROSKILLA: Astoari buztanean jartzen zitzaion babesgarria, mina ez hartzeko.

ASTONTZI: Sutarako hautsa jasotzen den ontzia.

ASTOPISTA: Kotxez ibiltzeko txarra den bidea.

ATALA: Garai bateko etxeetan, bi ateak erabat ixteko amaieran barrutik jartzen zen egurra.

ATE MORROLLA: Bisagrarik gabeko atea, atzeko partea borobildua duena.

ATITXI: Atea itxi.

ATSO-SUKALDE: Gizon kuxkuxeroei deitzeko adiera.

ATXIKETAN: Ume txikitan.

AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK: Tolosako Izaki Mitologikoa.

AUTOGOBERNU POTENTZIA: Autogobernu ponentziak izan dezakeen potentzia erabakitzeko eskubidearen alde daudenek, erabakitzeko eskubidearen alde egiten badute.

AXURIA: Arkumea.

AZAOA: Garia bildu ondoren egiten zen paketea, ondoren lastoarekin biltzen zena.

AZKANA: Pertsona nazkagarria.

AZKIROA: Mendian ibiltzeko lokatza denean "azkiro txarra" esaten da.

AZOKETAN: Zimitarioan burutzen zen jolasa.

AZPIARMONIAN: Marmarrean aritu.

AZPILAINOA: Behelainoa Amasan.

AZPILINTXI: Azpiko aldean egiten den atximurka.

AZPINTEA: Atximurra.

AZTERLOTSA: Azterketa lotsagarria egitean sentitzen duzuna sentimendua.

B

BABA: Aita.

BAHIA: Irina xehe-xehe pasatzeko tresna.

BAINA-PARDA: Pertsona luze eta argala.

BAKIA: Pasadorea, zulo txikiak zituen.

BANABARRA: Babarruna.

BARKAZIOAK: Oporrak

BARKUTI: barku.

BARRAGUREA: Tabernako barran egoteko gogo.

BARRUGIRO: Eguraldi makurraren ondorioz, kanpokoak kolorerik ere ez duenean etxekoaren aldean.

BASABURNIA: Sastraka.

BASAHOSTOA: Artoaren hosto gorria.

BASAUNTZA: Oreina.

BASURA: Goizeko ihintza.

BAXURDE: Euskaldun prototipoa, askotan baserritar, arrazista, matxista dena.

BAZARRA: Dendari txinatarrek egiten duten bilkura.

BAZKOA: Pazkoa.

BAZTERKETA: Irakurri ahala zurian uzten den azterketa.

BEBARRU: Atari, ezkaratz.

BEERTOKI: Villabonako artisau garagardoaren elkarte.

BELAUN KATILUA: Belaunen hezurra.

BELDURZKETA: Beldurra ematen duen azterketa.

BELOZIPEDOA: Bizikleta.

BELTXORRA: Begitxindorra.

BERDOTZA: Zurbila.

BEREBILA: Kotxea, bereziki gurasoek seme-alabak jasotzera doazenean erabiltzen dutena.

BERENDUA: Merienda.

BERTSONAIA: Bertsoz osatutako pertsonaia.

BESABEA: Idi batekin arto artean erabiltzen zen tresna.

BIBOTERIA: Bibotea apaindu eta mozteko lekua.

BIGA: Txahala.

BILZTEGIA: Hitzak gordetzeko lekua.

BIOPROBATU: Biologia gainditu, aprobatu.

BIRIBIRGINA: Egurra zulatzeko taladroa.

BIRUGELA: 2. eta 3. mailakoen gela.

BIZARDUNA: Umeak jaten edo bahitzen dituen pertsona, Amezketan (90eko hamarkadan). Frontoiko aldageletan egoten zen.

BIZIPIXA: Animaliak bizirik duen pisua.

BLAITERKIA: Aterki bustia.

BOTAHARRI: Zenbait pilota jokotan, sakea egiteko erabiltzen den harria.

BUIXIAK: Guraizeak.

BUJARDA: Mazo tankerakoa, harria lantzeko tresna.

BURRUNTZI: Teilatutik erortzen den izotz blokea.

BURTZIA: Trena.

BURUKOTEA: Arropa garbitzera-eta joateko, emakumeek buruan jarri ohi zuten zapia gainean ontzia eramateko.

BURUSIA: Belar motzak biltzeko erabiltzen zen oihala.

BURUTXANBULUKA: Zilipurdika ibiltzea.

BURUZUZEN: Burua zuzen duen pertsona.

BUSTIZINA: Igerilekua.

D

DEPORTILA: Ausarta, bihurria.

DEZDERA: Manibelaz lagunduta zorrozteko balio duen harri zirkularra.

DILIJAN: Dilistak jatearen ekintza.

DINDE: Katarroa hartzean sortutako muki arina.

DOMINISTIKU: Katarro garaian usin sortak eragindako zalaparta.

DRABA: Gurdia frenatzeko tresna.

DRANTZITTUA: Pasillo zabala.

E

EGOARRITOA: Elur jauzia.

EGOAZTU: Koltxoia astindu edo harrotzea.

EGOSI GABEKO MONDEJUA: Pertsona zuria.

EGURALDI BISUTXA: Giro hezea, lanbrotsua.

EGURALDI MAKUTSA: Eguraldia tristea.

EGURALDI ZIPOTEA: Eguraldi lainotsua, bustia.

ELKURRA: Burugogorra.

ELTZEA: Ergela.

ELTZEKONDOA: Janari hondarrak.

ENASA: Pertsona batek arropa zikina duela edo bera zikina dagoela esateko adiera.

ENPATIA: Villabonako futbol taldekoek exkaxagoa den aurkariaren kontra partidua berdindu eta gero izaten duten konplizitate sentimendua.

ENPAZI: Pazientzia galduaraztea.

ENTENGA: Iltze handia.

ENTRETXARRA: Entrenatzaile txarra.

EO-EO, OE!: Malkar Astialdi taldearen estrategia: ixildu zaitezte!

EREA: Idiak eta behiak uztarrian lotzeko soka

ERIKOA: Baldarra.

ERLEJISTIÑA: Azalean ateratzen den grano gorria.

EROKADA: Ero asko dagoen tokia.

EROSKENKETA: Erosketa bakoitzak kontu korrontean egiten duen kolore gorridun eragiketa.

ERRAHAZTUNA: Gauzak erraz ahazten dituen.

ERRALDEA: 5 kilo.

ERREGUE: Neurria, anegaren erdia.

ERREGUREA: Erretzeko gogoa.

ERRESUMINA: Laburpena.

ERROILA: Narra jaisteko bidea.

ERROMAIA: Orea egiteko mahaia.

ESKABELA: Eskilarako baranda.

ESKALTXA: Eskola txarra.

ESKATZA: Ukuilu eta sukalde arteko pasiloa.

ESKUBADOREA: Goilarea.

ESKUIPEA: Autoan telefonoa eskuan hartu gabe hitz egiteko tresna.

ESPANTARRAK: Abarkekin janzteko galtzerdi ordezeko trapuak.

ESTARTERA: Etxetik kanpora asko ibiltzen den emakumea.

ESTRA(TA): Bidezidor.

ETENGAK: Puntapax handiak.

ETXABURUA: Etxearen goiko aldea, kanpoaldetik.

ETXE AMETSA: Etxean amesten dena.

ETXEAITZINDARI: Etxeko jabea.

ETXEKALTE: Norbere buruaren kontra aritzea.

ETXEKONEKOA: Auzokoa.

ETXEORDEA: Borda.

ETZOLA: Gauza guztiak gaizki irteten zaizkion pertsona.

EURIA SUILEKIN BOTATA BEZALA ARITZEA: Euria zarra-zarra aritzea.

EUSERA: Euskaraz hitz egiteko era.

EUSGALTZAUNDIA: Tolosaldeko Euskal Hizkuntza Akademia.

EUSKOLA: Euskaraz hitz egiten den eskola.

EUTERA: Leku eguzkitsua.

EUTSAGA: Belarrari atzetik eusteko zutikako haga.

EZEZA: Fundamentu gutxikoa.

EZEZTEKOA: Borragoma.

EZINEROKOTASUNA: Eguna joan, eguna etorri, ezin bizi, ezinean bizitzea.

EZKONGUREA: Ezkontzeko gogoa.

EZPALA: Sua pizteko egur txikia.

EZPATA: Pertikan, gurdiaren gurtetxearen aurre eta atzealdean txertatzen diren zuretako bakoitza.

EZTABULA: Jolas edo joko batean etenaldia eskatzeko hitza.

F

FARDELA: Oihal handi bat, lau punta lotu eta makila sartuta mendira fianbre-
ra eramateko erabiltzen zen poltsa.

FINAUTERIAK: Tolosako iñauterizaleen Donostizazioa.

Fitakoa: Haizearen hotsa.

FLEMINGKIDETASUNA: Fleming ikastetxeko kide izateak sortzen duen
emozio eta sentimendua.

FULKTURA: Espero baino kontu garestia goa.

FUTSASKI: Futboleko baloiarekin, hankak erabiltzeko baloia saskia sarzen
ibiltzeko jolasa.

G

GABONILA: Abendua.

GAILURRA: Teilatuetako erdiko biga.

GAINAGA: Gurdia bete ostean karga eusteko erabiltzen zen makila.

GAISHOP: Kontsumisten gaitza.

GAITZERUA: Babarruna pisatzeko 12kiloko ontzia.

GAIZKI LOTUTAKO ODOLKIA: Ezertarako balio ez duenari deitzeko adiera.

GALARTZUA: Zinta, kordela.

GALBANA: Ajea edo biharamuna.

GALBORADA: Iberiak maleta galdu dizula-eta, kezka doinuek goizaldean
zure loa etetea (eta Twitterren denbora-pasa ibiltzea).

GALDOTXA: Artoaren lorea.

GALTZABARRENA: Galtzaren azpian doblatuta dagoena.

GALTZAGONA: Galtza batzuk soinekoarekin.

GALTZARBEA: Besapea.

GALTZIPURDIA: Galtzen atzeko aldea, ipurdi parekoa.

GANBARDINA: Ganba gabardinara-ren laburdura.

GANBELA: Behiek ukuiluan jaten duten lekua.

GANDUA: Kristaleko lurruna.

GANDUA: Mendiari itsatsitako lainoa.

GANTXOA: Aurkaria kontrakantxan zintzilik uztea.

GARAGARRILA: Ekaina. Garagarra biltzen den hila.

GATXETA: Amak maite ez dituen umeak.

GATXITXIA: Ardiak arkumea izan eta kasu egiten ez dion arkumetxoa.

GAUENARA: Xaguxarra.

GAUPOZA: Pozez beteriko gaua.

GAZI-KUTXA: Janaria gatzetan sartuta edukitzeko egurrezko kutxa.

GAZTANBERA: Mamia.

GELOTA: Egurra zepilatzeko zepilo handia.

GENEROA: Gauza edo egoera berezia, arraroa, kurioa...

GEZTERA: Gauzak zorrozteko harria.

GEZURRITE: Gezurra barra-barra bazterretan.

GILTZAUNDI: Gure buru itxiak irekitzeko giltza bakarra.

GIRGILO: Lepape.

GIXITXARRA: Genio txarreko pertsona.

GIZA-ESKUMALKAR: Giza-eskubideen pasadizo zaila.

GOGUREA: Alabak logale eta gosearen artean zer duen oso ondo ez dakien.

GOIKARRIA: Zaila.

GORGONA: Kolunpioa.

GORRAITZEA: Nahi denean bakarrik entzutea.

GOSFARIA: Afaltzeko garaian gosaria jatea.

GOZAKIA: Txerriaren jana.

GOZOURRUTI: Jarrera petrala azaltzen duena.

GUAI-DO: Trump-anzeren txotxongilo "cool"a.

GUARDASOLA: Aterkia.

GURKIA: Gorpildun aulkia.

GURTETXEA: Gurdian zamak hartzen duen erakuntza.

H

HAINMARIAK: Kanpaiak.

HAIZE-TXORO: Jendea txorakeriak egiten dagoen momentuan haize-txoro dago.

HAIZEMATU: Putz egin.

HAMARRATZA: Olagarroa.

HAMARREAN: Pilota-jolasa. Jokalari bakoitzak 10 tanto. Hamarrak galtzean, kanpora. Azken biak jokatzen dute azkena. Irabazlea hurrengo saioan 12 tantorekin hasten da, bigarrena 11rekin.

HANKA JOKOA EGIN: Alde egin.

HANKA-GORRIA: Ume jaio berria.

HANKAK LAKARIAN SARTU TA ZELEMONEGIN: Oso zaila den zerbait egin.

HANKATXINAK IBILI: Hanka hutsik ibili.

HARRAITZA: Erramintak zorrozteko harria

HARRAPAZKA: Umeak merendola baten antsietatearekin gauzak hartzen hasten direnean.

HARRIKA BOTA: Noraezean bota.

HARTZATZAILEA: Hartzak harrapatzen dituen pertsona.

HASERPUTZA: Azkar haserretzen den pertsona.

HASHTAKERA: Twitterreko etiketa zentzugabea.

HAU DEK MOKORDUA: Zerbait gaizki irtendakoan erabiltzen den esaldia.

HAUTS-APPA: Mugikorren instalatuta duzun baina erabiltzen ez duzun aplikazioa.

HAUTXAPA: Sekulako mezu erauntsia duen WhatsApp taldea.

HEGOAIDEATU: Arropak kanpoan lehortzen uztea gau serenoan.

HEGOIA: Gego haizea.

HERRIKO KANPINA: Kanposantua Bidania-Goiatzen.

HIK GAUZAI MAHATILLA BESTEIK EZTIOK JARTZEN: Hik gauzei pega/oztopo besterik ez diok jartzen.

HIKARA: Hikaz hitz egiteak sortzen duen bertigoia.

HILBERA: Hildakoan infernura joaten dena.

HILEZUSTEKOIA: Momentu desagokienean hilekoa etortzea.

HILKATILA: Txorkatila puskatuta.

HILTAMU: Hiltzear dagoenaren agonia, pertsona baten bizitzaren azken momentuak.

HIRIKIDEA: Hiriko laguna.

HIRUZTEGIA: Hiru hizkuntzatako hiztegia.

HITZFUN: Hitz dibertigarria.

HITZOKERRA: Hitz-okerra, egokia ez dena.

HITZOLARIAK: Euskararen egunaren harira sortutako #Hitzokei-en Tolosaldeko bertsioa.

HIZKUNTZA-POLIKIKA: Nekez garatzen den hizkuntza-politika.

HOI LEATAGURDI DIJOA ETXEA: Hori mozkorra doa etxera.

HONTZARENA EGIN: Zer suma egon!

HONTZARMARIO: Leloa.

HORITZEA: Ugaztunak erditu ondorengo lehen esnea.

HORMAHAIA: Ogi oreka egiteko mahaia.

HOTZIZARA: Neguan ohera sartu orduko bizitzen den hotz/plazer momentua.

HOZPIKOA: Aitzur txikia.

HUTXALAPIKOAK: Tolosaldeko gazte proletarioaren itsulapikoak.



IBARRAZISMOA: Ibarrakoekiko gorroto sentimendua.

IGANBATA: Asteburua.

IJENARGIA: Ilargia.

IKARASPENA: Beldur bidezko ikaspena.

IKASBELA: Ikasteko beldurra.

IKASBURU: Buruz ikastea.

IKULATXURRA: Lau hankako aitzurra.

ILEUSTEKO: Zinta edo diadema ileari eusteko.

ILINTXA: Txondorra egitean, guztiz egosi gabe dagoen egur zatia, oraindik ikatza ez dena.

ILLATEIA: Egurra erretzean ateratzen den brasa.

ILUNBIXTA: Iluntzen ari denean, baina oraindik guztiz ilundu gabe dagoenean.

IMARAGUA: Armiarma.

INAUSTARRA: Garoa.

IÑEZTURA: Tximista.

INORKINA: Garoa.

INTRATOA: Meza hasiera.

IÑULARREA: Ilunabarra.

IPURDIARINA: Mugitua, geldirik egoten ez dena.

IPURDIPERTOLA: Kaltzontzilo luzea.

IPURMAMI: Ipurmasaila.

IPURTERREA: Petrala.

IPURTOIHALA: Kuleroa.

IPURTZIKIÑA: Ipurdi zikina duena, ardiak izotz belarra jandakoan adibidez.

IRABAZKASI: Irabazten ikasi.

IRABUILA: Irakasleek buila egiteko gela.

IRASLE: Irakasle sentitzen den ikaslea.

IRRIBURUA: Gipuzkoako hiriburu zaharreko Plaza Zaharra Iñauterien hasieran

ISETSA: Erratza /buztana.

ISPIREN UZTEA: Zerbait eskura uztea.

ISTINGA: Soroan edo belardian sortu edo dagoen zingira edo putzua.

ITSUKETAN: Izkutaketan jolasa.

ITTUTE: Teilatupetik edo sabaitik datorren ur jarioa.

ITXARTOLA: Ikastola txarra.

ITZAIA: Ganaduaren aurretik ibiltzen zen pertsona, normalean gizonezkoa.

IXIPUA: Brotxa.

J

JAKINAHIE: Saltseroa, Amezketan.

JASOA: Pertsona zuhurra.

JEXUXENDARITZA: Fleming ikastetxeko oraingo zuzendaritza.

JORRAIA: Aitzur txikia.

JOXEPETAKO ZELAIA: Hilerria, Amezketa eta inguruetan.

JUMILAZIOA: Pentsiodunen soldata umilantea.

K

KABILA DANTZA: Masturbatzea.

KABILA: Gurdiko tresna.

KAIKUA: Inozoa, kirtena.

KAKAZUA: Ume petrala, Amezketa inguruan.

KAKOA: Astoei jartzen zitzaizkien zestoak.

KAKOLA: Asto gainean gauzak eramateko erabiltzen zen egurrezko egitura.

KAKOTXA: Arropa zabaltzeko pintza.

KAKUA: Egosteko ontzia.

KALAPITE: Iskanbila.

KALASKA: Erdi eroa

KAMASTILA: Ohearen azpia.

KANTASUNE: Kantarik gustukoena.

KAPIRIOA: Teilapeko egurrezko zutabeak.

KAPUINA: Ipuin txarra.

KAPUSAIA: txanoa. Garai batean pentsu zakuekin egiten zena.

KARPETA: Barrea eragiten duen porrua

KARRAMARROA: baserriko tresna, lurra txikitzeo erabiltzen dena.

KARRAPEA: Arkupea.

KARREA: Baserriko sarrera.

KARRUNKA: Eltze ipurdia erre ondorengo 'kostra', batez ere, esnearena

KARRUTXA: Karro txikia.

KARTAPAZIOA: Eskolako gauzak gordetzeko estutxea.

KARTOLAK: gurdiko zama ez erortzeko gurtetxearen alboetan jartzen diren oholak.

KASKAILU: burugogorra eta kexatia den pertsona.

KASKASOILA: Burusoila.

KASPAJO: Uretara buruz behera salto egitea.

KATAMU: Katuak loarazteko belarra.

KATANDUTA: Gogortuta.

KATILU POTTORRO: Katilu txiki borobila.

KATRAPILO: Korapiloa.

KATXUTXO: Txikiteroek erronda nork ordaindu behar duen erabakitze-
jokoa.

KERUE: Ke zaporea, karrunkaren ondorioa.

KIERRA: Kirtena.

KIKAK: Hortzak.

KILAUNA: Pinuak beheko zatian izaten duen orria. Garai batean, azpiak egia-
teko bildu eta erabiltzen zen.

KILIMIRRI: Kilimek eragiten duten irribarrea.

KILUA: Milioi pezeta.

Kinkia: Kriseilua.

KIRIKA: Ate zirrikutik begira jardutea.

KIRITXILA: Kirikiño soka motxila.

KIRKILLA: Kilberra.

KIROL LAGUNA: Lagunekin egiten diren kirolak.

KIRRINKA: Gurdia atzeraka joan ez dadin jartzen zaiona.

KIRTZENA: Makila zartaginari edo beste zerbaiti eusteko.

KOKORIKO: Orkatilen gainean eseritzea.

KOKU: Xomorro.

KOLLAGONA: Zaldiari lepoan jartzen zaiona, handik gurdia lotzeko.

KOLLA: Izotza.

KOLORIA: Kolorezko irudia edo argazkia.

KOLTXOI-ASTINTZAILEA: Pilotari kaxkarra.

KOMINAZIOA: Gonaren azpitik janzteko jantzia.

KORDELA: Behiak neurtzeko soka.

KOREA: Haizeleku, erreginenea...

KOTAN: Lo kuluxka egiten egotea.

KOTTEKONTARI: Penak kontatzen.

KOXKOLA: Lokotxa.

KOZKORRO: aspergarria.

KRISKETA: Atea isteko pestilloa.

KRISTARGIA: Kristalaren islada.

KUADETUAK: Koadrodun koaderno bat.

KUELA: Blixitan egosten zen ontzia .

KUKUSUA: Txorimaloa.

KULTIKULTOREAK: Kultura kultibatzen dutenak.

KULTZINTZILOAK: Galtzontzilo itxurako kuleroak.

KURRUKUTAKOAK: Tripa zorriak, goseak eragindako tripetako zarata.

KURTEREA: Uztarrian idial edo behiak lotzekoa.

KURTETXEA: Gurdiaren armazoa.

KURUMINO: Liztor.

KUTTUNA: Zilborrestea eteten denean, umeari gelditzen zaion zatia.

KUTUN: Orratzak eta jostoratzak sartzeko erabiltzen den kuxin txikia.

KUTXUMUTXUAK: Zurrumurruak.

L

LABATZA: Tximiniatik zintzilik, lurreko su gainean, jartzen zen pertza.

LAGUNBATA: Larunbateko laguna.

LAGUNJOKU: Lagunekin jolastu.

LAIA: Lurrari buelta emateko tresna.

LAINZA: Harrotuta.

LAIOTZA: Eguzkiak gutxi jotzen duena.

LAKARIA: Babarruna pisatzeko 3kiloko ontzia.

LAMA: Gurdiaren gorpila.

LAMARA: Gorputzak ematen duen berotasuna.

LANGUREZA: Lanerako gogo eskasa.

LANTZURDEA: Zuhaitzetan eransten den izotza.

LAPATX: Elur-maluta txikia.

LAPUTZA: Lapurra.

LARRATU: Ardiak larrera bota.

LARRUBE: Larruzko berokia.

LARTE: Mendikatea, tontorra.

LARULANA: Larunbateko lana.

LARUNBATORO: Azoka berezien maiztasuna neurtzeko unitatea Tolosan.

LASAKAPOTUA: Tentela.

LASTAIDA: Ehunezko zaku modukoa, handia, gai bigunez betea dena, gehienetan somierraren gainean jarritz, lo egiteko erabiltzen dena.

LEGA: Lera.

LEGAR: Zerga.

LEGATXINALA: Lega babesteko azpian jartzen zen egurra.

LEPA-GAZTA: Gehiegi jandako pertsona.

LEPASASKI: Lepoan ematen den saskia.

LEPAUTXIK: Neguan lepoan bufanda, buff, zapi, estalki, jertse... gabe ibiltzea.

LIBRA: Kilo erdi inguru.

LIGORRETA: Ligoteoaz erreta dagoena.

LIXIA: Arropa desinfektatzeko erabiltzen zen nahasteka. Sutarako hautsa, xaboia eta erramu hostoa.

LIXUA EGIN: Arropa garbitzea.

LIZTA: Soka fina.

LOGALERA: Loari kendutako denbora.

LOKAITZA: Logalea kentzen duena.

LORAILA: Maiatza.

LOSINTXA: Piropoa.

LOTXUSTA: Siesta txikia.

LOZORROA: Lo sakonean.

LUHARRIA: Soro bihurtutako larrea.

M

MADARIKATUA: Madariak jaten dituen katua.

MAHAIDEA: Ogia, taloa, ore... egiteko mahaia.

MAINAK EGIN: Kexak egin.

MAINONTZI: Negar egiten duena.

MAITAMUXUA: Maitasunez emandako musua

MAITATRUK: Doan.

MAITETXARRA: Maite duzun pertsona, baina gaiztoa dena.

MAIXIANTE: Saltsero.

MAIZANDREA: Gaixotasun bat.

MAKAKORROA: Marrua.

MAKATZA: Udarea.

MAKILANKA: Futbolari txarra.

MAKUTSIK: Manga motzetan.

MALO-MALO: Mara-mara.

MALTZA: Koskatik behera.

MANDARRA: Aurreko mantala.

MANDIOA: Baserriko ganbarako sarrera.

MANDRAGULA: trikimailu, azpijoko.

MANTARRA: Galtzerdien ordezeko moduan erabiltzen zena, zaku karratuko moduko bat, hanka eta abarken artean hartzen zena.

MARTIN PELOTARIA: Ukitzean borobiltzen den zomorroa. Botatzean edo landa eremuetan egon ohi da.

MARTOPILA: Artoarekin egindako masa moduko bat, ogiaren antzekoa.

MARTXISTA: Matxista den marxista (marxista guztiak ez dira matxistak).

MASPILDU: Gaztainei azala kentzea.

MATILA: Atean jartzen den egurrezko pieza.

MATITZATU: Maitasuna itzali.

MATRAKA: Neska lotsagabea baina era goxoan esanda.

MATUTIA: Goizean goiz jotzen ziren kanpaiak.

MATXARDA: Gaztaina morkoa biltzeko tresna.

MAUKE: Manga.

MAXINA: Hilerokoa, Amezketan entzuna.

MAXIXATU: Txutxumutxuka ibili.

MENDEBALDEKOTIK: Euria egiten duenean, haizeak zeharka jotzen duenean.

MENDIKIROLA: Mendian egiten den kirola.

MERKAUSIA: Larunbatero Zerkausian antolatzen duten zentro komertziala.

MESIZARRA: Izar batek bidalitako mezua.

METATXORROA: Belar meta txikia.

METAZIRIA: Meta egiteko erdian jartzen den egurra.

MIHISEKA: Mihiarekin egindako burla edo iseka.

MIÑAUTERIA: Atzerrian dagoen tolosar batek tristuraz, minez bizi duen iñauteria.

MINKERUA: Pasata dagoen janaria, egoera txarrean dagoena.

MINZURRIA: Min ez oso fuertea baina jarraia.

MIRABE: Zerbitzari.

MIRGIÑA: Gutxi jaten duena.

MIRUNI: Emazte.

MITXAI: Alaba.

MITXERREKA: Tximeleta.

MITXIGU: Tolosan enara.

MIXKIÑE: Tikis-mikis.

MOARRI: Mugarri.

Mokotarroa: Kakalardoa.

MOMENTU-BIDEA: Gaztetasuna .

MORRALA: Janaria mendira eramateko ontzia, bizkarrean eramatekoa.

MORROLLUA: Atea eskuz ixten duen sarraila.

MORZIKLETA: Motordun bizikleta.

MOTRALA: Astoei muturrean jartzekoa.

MOTXAILLA: Astoei ilea mozten ziona.

MOXTAKA: Pertsona txikia eta zabala.

MUKURU: Lokarria baino handiagoa esan nahi duen neurria.

MULTSUA: Mahaia garbitzeko trapua.

MUÑOTSA: Mendiko koska txikia.

MUNPENA: Munduaren bukaerak pena ematen dion pertsona.

MUSUA: Aho ingurua.

MUTXINE: Sagarraren barrualdea.

MUXINA: Alua.

MUXUMERKE: Erraz-erraz muxuak ematen dituen pertsona.

MUZIÑA: Eguraldi makala, tristea.

N

NABARMENGAILU: Fosforito.

NAHAKOA: Lasaia.

NARDAIA: Soroan lan egiteko, idi parean lotzeko edo bat egiteko goldeari

eransteko erabiltzen zena.

NARDAKASLEA: Nazka ematen duen irakaslea.

NARRA: Gurdiaren atzetik arrastaka eramaten den pisua.

NEKEZARIA: Gogorik gabe, nekez lan egiten duena.

NESKAMEA: Laratzetik zintzilikatzen den burdin zatia, eltzeak zintzilikatzeko.

Ñ

ÑIKI ÑAKA: Eztabaida.

ÑIR-ÑIR: Dizdizka.

N

NIZKUNTZA: Abeslari ezagun baten adierazpenek inspiratuta, norberak bere hizkuntza bere modura ulertzeko era.

NOMEN: Izotzezko xafla.

O

OBEBARRENA: Ohearen hanka aldea, burualdea ez dena.

OHIAL-ZORRO: Kartapazioa.

OINAZKARRA: Tximista.

OKITU: Hasarretu.

OLATZ PATROI: Olatz Peonen izen aldaketa, alkate jarritz geroztik.

ONDASUN: Eskuratu daitekeen baliozko gauza.

ONDE ATXURRA: Aitzur handi bat.

ONDOGEATU: Denekin ondo geratu nahi duen pertsona.

ONGIA: Ogi handia.

ONTULATUA: Janaria.

ORDOTS: Txerri arra.

ORIA: Txekorraren jana.

ORITZE: Kumea egin berriaren lehen esnea.

ORMAZIRIAK: Estalaktitak.

ORRANTZA: Legamia.

ORTOTSA: Trumoia.

OSOA: Osaba Villabona eta inguruetan.

OSPORE: Gosea ezin ase.

OTE JOKIA: Otea txikitzeko tresna, gero ganaduari jaten emateko.

OTSO-HAIZEA: Haizeak ulu egiten duenean.

OUTSAP: WhatsApp taldean dagoen baina urteetan ezer ez idatzi ez duen laguna.

OZALEA: Txerri-jana

OZPIKOA: Bi hortzeko aitzurra.

P

PALENKA: Baserri munduan, hesiak egiteko estaka sartzeko zuloa palenkak egiten du lurrean.

PAOTXA: Belar mota bat, ganaduarentzako oso ona.

PAPETX: Paperezko etxea.

PAPILOKETAN IBILTZEA: Gordeketan ibiltzea.

PARETABELARRA: Sendabelarra.

PARRAMURRUA: Barre bihurria.

PARTANAK: Galtzerdien partez erabiltzen zena.

PASTAKERIA: Otordu ederra egin ondoren, Kafea hartzekoan egin ohi dena.

PATXI PUNTAN: Urruti.

PATXIKUSALTO: Matxinsalto.

PAZIA: Esnea erosteko ontzia

PDFTU: Word dokumentu bat PDFra bihurtu.

PEDAL KOTXEA: Pedalekin funtzionatzen duen kotxea.

PENTSAMETRO: Pentsatzeko gailua.

PERTIKA: Gurdia eta behorraren artekoa, elkar lotzeko erabiltzen dena.

PERTZA: Txerrien odola edo esnea biltzeko baldea.

PETRILA: Etxeko ataria.

PETZAKA: Jan ondoren leporaino gelditzen zarenean.

PIJOA: Ausarta.

PIKOTXEAN: Belaunak tolestuta, eserita bageunde bezala baina ipurdia airean dugula, egotea.

PILOTAKADA: Buruan abentura gehiegi izatearen ondorioa.

PINOTXOPOTE: Ostalarien aitzakia edo gezurtxoa tabernak betetzeko ostegunetan.

PINPILOTA: Ping-pongean esku pilotarekin eta eskuz ibiltzeko jolasa.

PINTARINA: Kaxkarina.

PIPARRALDE: Ibarra, Tolosako sukaldarientzat.

PIRIKARIA: Umeetako jolasa.

PIRIRIKA: Zilipurdika erortzea.

PIXAKETANBLAI: Txizagura duzula esateko modua.

PIXMAIZA: Prostata arineko pertsona.

PIXPIX: Pilota edo baloi batekin elkar-jotzea helburu duen jolasa. Taldean jokutzen da. Jotakoa bazterrera.

PIZTAKOA: Belarrondokoa, Amezketan.

POLITURRUTIA: Norbait itsusia dela esateko modu atsegina.

POTOTXIÑA: Sega-poto.

POTROMOKON: Urruti.

POTTA: Musua.

POXA: Norbere lagun taldean egun batez Egunean Behin jokoan irabazteak sortzen duen poz txikia.

POXPOLOAN IZAN: Sutan eduki.

PRANKO: Ugari.

PROTOLOKO: Protokolo eroa.

PUNTAKARRIA: Arkatza zorroztekoa.

PUNTAMAXA: Iltzea.

PURDIONA: Axolagabe, kolperik jo gabe bizi nahi duena.

PUREKA: Kalabazaz egindako purea.

PURTZIL: Ustez eskasagoak direnak gutxiesteko erabilitako biraoa.

PUTZUSAINA: Puzkerra.

PUXKARKUMEA: Etxeko txikiena eta mimatuena.

PUXTARRIA: Taba.

PUZKER-ONTZI: esne-ontzia edo ur-ontzia bezala, puzker asko gordetzen dituen ontzi edo gorputza. Gaztainak jan eta gero, denok puzker-ontzi.

R

RENEURTZ: Neurtzen duen erregela.

RENTATU: Ekintza bati etekina atera.

S

SABALTXISKERO: Polizi eta lapurren jolasa baina, harrapatzen bi direnean.

SAGARBIKETA: Sagarrak garbitzeko prozesua.

SAKAPIDE: Baserrietan teilatuko egurrak eta paretaren arteko zuloa.

SAKE ZIRIA: Pilota jokoan, sakea txaparen gain-gainea ateratakoan esaten zaio.

SAKEA: Pilota partidua bokatu batez irentsi ahal izateko gaitasuna.

SALTA PATXIKE: Matxinsaltoa.

SALTASOKA: Soka saltoa.

SALTOPERIKO: Matxinsaltoa.

SAN JAUNAK: Tolosako jauntxoan festa nagusia.

SAN JUANAK: Tolosako Korazonisten elizatik emandako santuak.

SANGIRIA: Animaliak hiltzen dituztenean ateratzen zaien odola.

SAPAIA: Ganbara gainekoa.

SAPELARRA: Belar mota bat.

SASILARROSA: Sasi askoren artean hazten den larrosa, piropo bezala ere erabiltzen da.

SASISUMATEN: Liskar bila.

SASONDU: Haizerik hartu gabeko egurra sasonduta geratzen da.

SATELITEA: Batetik bestera dabilen pertsona.

SEINALITIKARA: Errepideko seinaleak ikusita zer egin jakin gabe geratzea.

SENPERRAK: Oso gaizki pasa, asko sufritu "Aitonak senperrak pasa zituen gerra ostean".

SESTRAN (ibili): Kalapitan ibili.

SEXKUSA: Sexua ez izateko asmatzen den aitzakia.

SEXTOA: Villabonako Rk tabernan, abenduaren 31n zozketatzen den sexu jostailuez betetako saskia

SITXEL: Zirikatzaile.

SOKORRA: Lur pusketa.

SOPAPO: Zopakoa.

SORTA BELARRA: Belar sorta.

SORTA: Buket txiki bat egiteko soka.

SORTA: Gizakiak bizkarrean garraiatzen duen karga.

SORTAKA: Belar, gari edo antzekoekin egindako pila.

SU TA (HA)MAR: Su Ta Garren kontzertua ikustera joan nahi eta, ilaran luza-roan itxaron ondoren, hamar sarrera bakarrik saltzen dituztela jakitea.

SUKALDABILA: Sukaldean abila den pertsona.

SULIKIDOA: Laba.

SUPERSAIA: Euskalduntze azterketa zail baten ondoren oldartzen den ikaslea.

T

TAKOIASLEA: Takoidun irakaslea.

TANTAIA: Gurdiaren zama eusteko erabiltzen den zurezko pieza luze eta zuzena.

TAPETANA: Zauria ixteko/babesteko oihal zatia.

TARATULUA: Egurrean zuloa egiteko erreminta.

TATATSA: Saltsera.

TEKELA: Iskanbila.

TELE-KASKOA: Telebista eta horrelako gauzak ikusteko kaskoa.

TELEBIFONOA: Telebista eta telefonoa.

TENTEJENDE: Burua besteen gainetik altxata ibiltzen den handiustea.

TERRALA: Behe-lainoa.

TIALEAK ATERA: Gorputz atalen luzaketak.

TOKOTEA: biraoa.

TOLOSARRO: Tolosako biztanlea, bertakoa izateaz harro dagoena (populazioaren %86 inguru).

TONTO IXPILLUE: Tonto galanta.

TOPOLINOA: Botila zerbeza txikia.

TOXA: Kuadrillan edota jende multzo baten dirua biltzeko poltsa edo kartera.

TRABA: Gurdia geldiarazteko galga.

TRABESA: Aitzurra antzeko tresna.

TRADIDOREAK: Gure tradizioekin gaizki jokatzeko dutenak.

TRANKA: Atea itxita mantentzeko egurra edo burnia.

TRASKALA: Traketsa, baldarra.

TRUMON: Trumoi handia.

TRUMP-ANZE: Txinpanze ilehori ez bereziki solidarioa.

TUPIA: Ardatzaren ardatzari eusteko.

TURTUKIA: Errotako harria.

TXAATILE: Ardi ilezko haria biltzeko tresna.

TXABETA: Sega kirtenari eusteko jartzen zitzaiona. Kuña txikia.

TXABUSINA: Etxeko bata.

TXAKALA: Fundamentu gutxikoa.

TXAKUR HANDI: 10 zentimo.

TXAKUR TXIKI: 5 zentimo.

TXALEPELA: Txaleko epela.

TXANBOIA: Txapuzeroa.

TXANMA: Astoei kakoen azpian jartzen zitzaien manta modukoa, mina ez hartzeko jartzen zen.

TXANTILLE: Litro erdi, marmitatik esnea ateratzeko.

TXANTXIKUA: Iseka egitea.

TXANTXILLE: Esnea eta ura ekartzeko ontzia.

TXANTXIURRA: Hestea betetzeko txorizo-masa.

TXAPINAK: Etxeko zapatilak.

TXAPINFESTA: Etxeko giroan, bestelako baloreak sustatuz eta geurera ekarriz, tolosar gazte hainbatek urtetan antolatu eta gozatutako festa.

TXAPINTXA: Arantzak dituen etxeko zapatila.

TXAR-TXAR-TXAR LANEAN ARITU: Etengabe lanean aritu.

TXARANTZAINA: Dultzainak daramatzen Tolosako txaranga.

TXARDENGOA: Belarra jiratzeko tresna.

TXATOLA: sagu tranpa.

TXATXAMORDOA: Gogorik gabe eta errazenera joz egiten den idatzi edo marrazkia.

TXEPETXAREN MUINAK: Jateko zer dagoen galdetzen dutenei erantzuteko esaldia.

TXERAO BILDU: ondo bildu, batez ere belarra eskuarearekin biltzeko garaian erabiltzen da.

TXERRASKA: Txerrientzako aska.

TXERRIURDEA: Txerriaren eta basurdearen arteko umea.

TXIMELAREN BARATZA: Tolosako hilerria.

TXIMURTXIA: Atximurra.

TXIÑALKA (JARRI): Zapatila atzealdean zanpatuta jartzea.

TXINGURE: Segarrikatzeko erabiltzen zen burnia.

TXIPOTOTXINEAN (IBILI): lagun arteko gustuko tertulia.

TXIPOTXA: Mondejua.

TXIRRISKATU: Leihoa erdi ireki.

TXIRRISKUA: Tarte.

TXISKEROA: Metxeroa.

TXISPAIA: borobil bat sarearekin, babarrunari hautsa kentzeko.

TXIT: Oso, askoz ere.

TXOIXUARRI: Egiten duen hotzerako arropa gutxiegi janztea.

TXOKOLA: Purua.

TXOKOTEA: Zotina.

TXOLA: Edateko kopa.

TXOLIÑA: Neska tuntuna.

TXOLOPOTEA: Aldian behin N-1 errepidean sortzen diren auto-ilara amaigabeak.

TXOMIN (IZATEA): Haur batek logura duenean.

TXOMINEN DENDA: Dena desordenatuta dagoela esateko adiera.

TXONTA: Neskari esaten zaion burla; tuntun, txolinaren antzeko adiera duena.

TXORI-IZUGARRIA: Txorimaloa.

TXORROSKILLOA: Zorrozkailua.

TXORTALAGUN: Inolako konpromisurik gabe sexu harremanak edukitzeko laguna.

TXOSTONA: Tostoi bat den txostena.

TXUIKINA: Artaburua estaltzen duen azala eta ostoak.

TXUKADERA: Platerrak jasotzeko egurrezko altzaria.

TXUKINA: Arto mazorkaren hostoak.

TXUKUNURRUTI: Narratsa den pertsonari deitzeko erabiltzen da.

TXURNIOA: Orkatila.

TXURRIKETEGUAI: Emozionatuta zaudela adierazteko hitza .

TXUTXUMUTXUKA: Gurdia kulunkan ibiltzea.

U

UDENEARRA: Etengabe tantaka dagoen ur emaria.

UELA: Larruzko tirak, astoa lotzeko erabiltzen zirenak.

UMELA: Eguraldi motela.

URHANDITU: Egurra uraren eraginez haztea.

URKIZULO: AHTren tunel sarea Tolosan.

URTEBARRIGON: Urte berria gizenduta hastea.

URTXILLOA: Arropa zabaltzeko pintza.

USURIA: Pixa.

UTOPIC: Tolosako artistek ametsetan irudikatzen duten txotxongilo-etxea.

V

VOSCH: Garbiketa etnikoa egiten duen elektrotresna.

VOX-GORAILU: Giza-eskubideen aurkako mezu zabalgailua.

X

XANTI: Pertsona xelebre bat izendatzeko asmatutako kontzeptua

XAPALDA: Leiho aurreko koxkak eta bestelakoak.

XARDENGOA: Gaztaina morkoa biltzeko tresna.

XELEBRETIA: Herriko pertsona xelebrea.

XERRADA: Xerra.

XIMONERO: monagilo, akolito.

XIMUKOA: Atximurka.

XIXPAIA: Pasadorea, zulo handiak zituen.

XIXTERA: Pilota jokoetako tresna, eskuari lotzen zaion zumitzeko saski estu eta luze baten modukoa.

XORRO-XORRO: Gaiztakeriatan ibiltzea.

XUXKITATU: Sukaldean erratza pasatzea.

XUXTA: Bazkal ondorengo lo-kuluxka laburra.

Z

ZAGIA: Ardoa garraiatzeko poltsa.

ZAHARRANO: Adineko jendearentzako moduko errazioa.

ZAINBELARRA: Baserriko paretan ateratzen den landare mota, zauriak sendatzeko baliagarria.

ZALDAMIZO: Sustoarekin salto egitea.

ZALDIZKA: Euria haize askorekin erortzea.

ZALELOA: Zintzo portatu ez eta harmailetan lelokeriatan aritzen den zale "maitagarria".

ZAMARRUA: Intsektua.

ZAMUKA: Aberearen gainean bigungarri gisa jartzen den espartzuz edo artilez betetako oihala.

ZANKALATERO (ERAMAN): Umeak lepo gainean eramatea.

ZANKALATRAKA: Aulkiari buelta eman eta bizkarraldea aurrean duzula, esertzea, Amezketan eta Lizartzan.

ZANKALATRANKA: Astoan edo moto gainean zintzilika joatea.

ZANPANA: Pertsona motela, makala, inuzente samarra...

ZAPEROA: Pertza, txerri jana gordetzeko.

ZAPINAK: Artilezko galtzerdiak.

ZAPOA: Pertsona baldarra.

ZAPUTZ: Umore txarrekoa, jendarteari ihes egiten diona.

ZARA-HUTS: Neuronaz eskas dabilenaren herria.

ZARPA: Arropa.

ZARTRITIS: Adinak dakartzan ajeak.

ZELARDI: Ez zelai, ez belardi.

ZERRAZUIA: Behe lainoa.

ZERREPELA: Gutxitxo berotutakoa, epela baino hotzagoa.

ZESUMA (EGON): Zer egin ez dakizula egotea.

ZIKILISTOA: Beti gurpilean doazen txirrindulariak; azken aldian motordun bizikletan dabiltzanak ere izan daitezke.

ZILA: Zilborra.

ZILDAIA: Txekorrei lepoan jartzen zaiena.

ZILA: Zilbor-hestea.

ZIMITERIOA: Elizako ataria.

ZINBULUKA (IBILI): Nor bere buruaren gainean aldapan behera biraka ibiltzea.

ZINEGOTXI-TAMAGOTXI: Lau urtean behin janari-botoa eman behar diegun maskota birtualak.

ZINTZTRIPU: Mukiak kentzeagatik izandako ezbeharra.

ZIPATU: Irristatu, estropezu egin.

ZIPOTZA: Barrika ixteko kortxoak.

ZIPRINDADEA: Abiadura.

ZIRIBURLA: Zirikatuz burla egitea.

ZIRIKASLEA: Zirika egiten duen ikaslea.

ZIRRIKA: Gurpila.

ZIRRINDA: Tira estu eta luzea.

ZIZALLUA: Paretan gora lotuta egoten zen mahaia, behar zenetan askatu eta behera jaisten zena.

ZIZERKORA: Txingorra.

ZIZKI-MIAZKAK: Gozamenaren pintxo-zurrupeak.

ZOKORMAZOA: Egoskorra edo tontolapikoa.

ZOKORRA: Lur koxkorra.

ZOKOTENA: Intxaurraren gaineko azalaren mintza.

ZOKUMEA: Patata moztean okertuta erdizka uzten den errenkada.

ZOLDAZUA: Zikina.

ZORIONTXARRA: Urtebetetze egunean egun txarra izatea.

ZORRAZIA: Zorriak kentzeko orrazia.

ZOTALA: Lurrarekin ateratzen zena, belarra edo garoaren metaren gainean jartzeko, metazirian sartuta.

ZOTALEGUNAK: Urtarrileko lehen 12 egunei esaten zitzaien eta egun horietako eguraldiak ondorengo hilabeteetako eguraldia iragartzeko balio zuen. Egun bakoitzak hilabete bat iragartzen zuen.

ZOZOMIKOTEA: Udaberriko negualdia.

ZUATZA: Garoarekin egindako belar pila edo meta.

ZUKITA: Zerbait edo norbait txikia dela adierazteko hitza.

ZULUBIAK: Egurrezko eskailerak.

ZUMA: Zumea.

ZUMITZA: Gaz-tainondoaren edo hurritzaren egur xafla estuak, saskiak egiteko.

ZUMITZA: Gazta egindakoan gazta hori sartzeko moldea.

ZUPIA: Zubia.

ZURRUKUTUNA: Sorbetea.

#hitzolariak

Euskararen Eguna Tolosaldean 2019



galtzaundi
e u s k a r a t a l d e a